



Genero-arrazoiengatik jazarritako emakumeei asilo-eskubidea aitortzeko kanpaina

[www.sinrefugio.org](http://www.sinrefugio.org)



CEAR-Euskadi - Kristo kalea, 9b, 5. solairua 48007 Bilbao Telf 944248844 Faxa 944245938



**CEAR-Euskadi prestatua:**

Koordinazioa:  
Itziar Caballero

Kolaborazioa:  
Andrea Gómez  
Vanessa Gutiérrez  
Karen Rodríguez  
Olatz Salazar

Testuen eta edukiaren berrikusketa:  
Raquel Celis  
Suniva Martínez  
Karen Musalo

**Itzulpena:**

Bakun - Itzulpen eta Argitalpen Zerbitzuak, S.L.

**Diseinua, maketazioa eta inprimazioa:**

Jon Cortegoso  
Tatiana González  
Iván Repila  
Karen Rodríguez  
Gonzalo Romero  
Centro reprográfico Goya

**Finantziazioa:**



ETXEBIZITZA ETA GIZARTE  
GAIETAKO SAILA  
Garapen Lankidetzarako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA  
Y ASUNTOS SOCIALES  
Dirección de Cooperación al Desarrollo

**Kolaborazioa:**

CENTER FOR  
Gender & Refugee  
& STUDIES

w  
w  
w  
.  
s  
i  
n  
r  
e  
f  
u  
g  
i  
o  
.  
o  
r  
g

NO  
ENTRA

Genero-arrazoiengatik jazarritako emakumeei asilo-eskubidea aitortzeko kanpaina

[www.sinrefugio.org](http://www.sinrefugio.org)



CEAR-Euskadi - Kristo kalea, 9b - 5. solairua 48007 Bilbao Telf 944248844 Faxe 944245938

w  
w  
w  
·  
s  
i  
n  
r  
e  
f  
u  
g  
i  
o  
·  
o  
r  
g

3

## Aurkibidea

### 0.NO ENTRA. Genero-arrazoiengatik jazarritako emakumeei asilo-eskubidea aitortzeko kanpaina

#### 1. Emakumeen egoera munduan

- 1.1. Jazarpen bihurtzen den diskriminazioa
- 1.2. Nazioartean babes gutxi

#### 2. Asilo-eskubidea

#### 3. Genero-arrazoiengatik jazarpena

- 3.1. Jazarpena eta diskriminazioa asilo-eskubidearen esparruan
- 3.2. Generoa eta genero-ikuspegia
- 3.3. Genero-arrazoiengatik jazarpena
  - 3.3.1. Generoan oinarritutako jazarpena
  - 3.3.2. Sexuaren araberrako zigorrak eta jazarpen-moduak

#### 4. Genero-arrazoiengatik jazaritzeko moduak

#### 5. Genero-arrazoiengatik jazarpena aitortzea

#### 6. Espainiako asilo-sistema eta genero-arrazoiengatik jazarpena

- 6.1. Aurrera egitea beharrezkoa duten esparruak
  - 6.1.1. Emakumeen giza eskubideak bermatuko dituen asilo-eskubidearen interpretazioa
    - a) Jazarpen kontzeptua
    - b) Jazarpen-arrazoiak
    - c) Jazarpen-eragileak
    - d) Emakumeak gizarte-talde gisa
  - 6.1.2. Asiloa eskatzeko prozeduretan genero-ikuspegia sartzea
    - a) Prozedurarako sarbidea
      - Herrialde seguru batera iristea
      - Prozedurarako sarbidea
    - b) Eskakerak behar bezala bideratzea
      - Genero-kontuetan prestatutako eta espezializatutako langileak
      - Asilo-eskaeretan emakumeek norbanako gisa ere eskaera egin dezaketen ikustea
        - Elkarrizketaren baldintza egokiak
        - Genero-bermeak ematen dituzten laguntza-baliabideak asiloa eskatzen duten pertsonentzat
- 6.2. Interpretazio hori barneratzeko estrategiak eta Espainiako asilo-sistemaren prozedura
  - 6.2.1. Genero-arrazoiengatik jazarpenari buruzko Gobernu Jarraibideen formulazioa
  - 6.2.2. Asilo Legearen eta haren Aplikazio Erregelamenduaren aldaketa
  - 6.2.3. Jarraibideen segimendua egiteko sistema bat ezartzea
  - 6.2.4. Gaikuntza eta prestakuntza espezializatua
  - 6.2.5. Genero-arrazoiengatik jazarpena Europar Batasunean sartzea

#### 7. Bibliografia



Genero-arrazoiengatik jazarritako emakumeei asilo-eskubidea aitortzeko kanpaina

0.

**NO ENTRA**

## **Genero-arrazoiengatik jazarritako emakumeei asilo-eskubidea aitortzeko kanpaina**

CEAR-Euskadin, presio politikoa egiteko kanpaina bat garatzen ari gara, hiru helburu hauekin:

- Asilo-eskubidean eta haren prozeduretan genero-ikuspegia sar dadin sustatzea.
- Genero-arrazoiengatik jazarpena zer den jakinaraztea.
- Espainiako Gobernuak jazarpen hori benetan aitortzea.

Garrantzi handiko unea da hau, Asilo Legea berehala aldatuko delako eta ekainean jatorriko herrialdean genero-indarkeria jasan zuen emakume bati errefuxiatu-estatutua aitortuko zaiolako.

Presio-estrategia gisa, lobby-talde bat eratu da. Erakunde publikoek eta beste erakunde batzuek parte hartzen dute bertan, eta bi ekintza-ildo ari da garatzen: alde batetik, barne-jarduerak, nork bere erakundean eta bere xede-taldeetan jazarpen horren eta asilo-eskubidearen berri emateko; bestetik, berriz, kanpo-jarduerak, taldeko gainerako kideekin koordinatuta, Espainiako Gobernuari presioa egiteko.

Informazio gehiago nahi izanez gero:  
Itziar Caballero González  
Kanpainaren koordinatzailea  
Tel. 94 424 88 44  
ceareuskadi@sinrefugio.org  
www.sinrefugio.org



# 1.

## Emakumeen egoera munduan

### 1.1. JAZARPEN BIHURTZEN DEN DISKRIMINAZIOA

Emakumeek desberdintasuna eta mendekotasuna sufritzen dituzte gizarte guztietan, hitzez nahiz oinarrizko eskubideak larri urratzen zaizkiela. Ez dira ezohizko egoerak: aitzitik, bizitzaren eta osotasun fisikoaren aurkako erasoak dira, torturak eta tratu jasanezinak, testuinguru gehiegitan sarriegi gertatzen direnak.

Emakumeak emakume izateagatik jazartzen dituzte

### 1.2. NAZIOARTEAN BABES GUTXI

Pixkana-pixkana, emakumeen oinarrizko eskubideei egiten zaien urraketa larriaz eta handiaz ohartzen ari gara, eta horrek agerian uzten du urraketan zigorgabetasuna. Gobernu-erakundeen interes falta, nazioarteko babeserako mekanismo espezifikoen eskasia eta haien interpretazioa tradizionalista (Valiente, M. 2005) direla eta, emakumeak erasotzen errazak dira. Alde izugarria dago eskubideak izatearen eta haiez benetan gozatzeko aukeraren artean.

Azken hamarkada honetan, emakumeak antolatu egin dira, giza eskubideei buruzko nazioarteko arauak aplikatzen sortzen diren desberdintasunak gainditzeko. Dei egin diote nazioarteko komunitateari, giza eskubideak emakumeenak ere badirela aitortu dezan (Musalo, K. 2005).

Baliabide horien artean, asilo-eskubidea dago, generoarekin lotutako arrazoiengatik jazarrita egonik jatorriko herrialdeetatik ihes egiten duten emakume giztiak babestu behar dituenak.

'Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna Giza Eskubide bat eta gizarte-justizia lortzeko baldintza bat da, baita Berdintasunerako, Garapenerako eta Baberako alde zuzeneko beharrezko eta funtsezko eskakizun bat ere'  
*Emakumeen Munduko IV. Konferentzia, Beijing, 1995*





## 2. Asilo-eskubidea

Asiloa bilatzeko eta asiloa izateko eskubidea Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsaleko 14. artikuluan jasotako oinarizko eskubide bat da.

II. Mundu Gerraren ondoren, lehen aldiz nazioarteko komunitatearen erantzukizuntzat hartu zen jatorriko herrialdetik ihes egin behar izan zuen jendearen egoera. 1951ko Genevako Konbentzioa sortu zen, Nazio Batuen baitan; eta, konbentzio horretan, honela definitzen da errefuxiatua: arrazagatik, erlijioagatik, nazionalitateagatik, gizarte-talde jakin batekoa izateagatik edota iritzi politikoagatik jazarria izateko arrazoizko beldurra izanik, bere herrialdetik kanpo dagoen pertsona eta herrialde horren babesik jaso ezin duena edo, beldur horiek direla-eta, haren babesik jaso nahi ez duena.

Konbentzio hori eta 1967ko Protokoloa sinatu zituzten estatuek babesa eman behar diete nahitaez beren lurraldera asilo bila iritsitako pertsonari. Konbentzio hori da Espainian asilo-eskubidea aitortzeko oinarria.

‘Gure gizarteetan asiloa emateko prozedura zenbat eta bidezkoagoa eta eraginkorragoa izan, orduan eta demokratikoagoak izango dira gure gizarteak.’

Hannah Arendt

2001eko apirilaren 23an, Gorte Nagusietako Emakumeen Eskubideen Batzorde Mistoak –parlamentuko talde guztiek aho batez hala erabakita– honako eskaera hauek egin zizkion Gobernuari:

- Edozein motatako genero-indarkeria dela-eta beren herrialdeetatik alde egiten duten emakumeak babesteko.
- Asilo-eskaerak bideratzean, generoarekin lotutako alderdiak kontuan izateko.
- Europar Batasunaren esparruan genero-arrazoiengatik jazarpenaren aitortpena mahaigaineratzeko.

Gaur egun, ia lau urte geroago, espainiar Estatuak ez ditu konpromiso horiek bete.

Espainiak ez ditu babesten genero-arrazoiengatik jazarritako emakumeak



### 3.

## Genero-arrazoiengatik jazarpena

### 3.1. JAZARPENA ETA DISKRIMINAZIOA ASILO-ESKUBIDEAREN ESPARRUAN

Asiloaren esparruan, honako hau da **jazarpena**: arrazagatik, erlijioagatik, nazionalitateagatik, iritzi politikoagatik edota gizarte-talde jakin batekoa izateagatik pertsonen oinarrizko eskubideak larri urratzen dituen edozein ekintza. Asilo-sistemak pertsona jakin batekiko jazarpena gertatzen ari dela aitortzen dezan, pertsona horrek jazarria izan dela, jazarria dela edota horretarako arrazoizko beldurrak dituela frogatu behar du. Ez da nahikoa jakitea pertsona horren jatorriko herrialdean giza eskubideak larri urratzen direla.

**Diskriminazioak** funtsean ondorio kaltegarriak baditu, edo oinarrizko eskubide bat larri urratzen badu, asilo-eskubidearen bidez erantzun beharreko jazarpena da.

### 3.2. GENEROA ETA GENERO-IKUSPEGIA

‘**Genero**’ kontzeptuak maskulinitatearen eta feminitatearen eraikuntza-prozesu psikosozialari egiten dio erreferentzia. Emakumeei eta gizonei lotutako jokaeren eta funtzioen bidez jartzen da agerian, eta bi horien arteko botere- eta mendekotasun-harremanak nabarmentzen ditu. Sozializazio-prozesuaren bidez eraikitzen da, eta testuinguruak (kultura, gizartea, politika eta ekonomia) baldintzatzen du. Gizarte guztietan dago emakumeen eta emakumezkoen aurkako diskriminazioa eta desberdintasuna.

**Genero-ikuspegia** ezinbesteko azterketa- eta planifikazio-baliabidea da, zenbait gauzatarako: testuinguru jakin bateko emakumeen eta gizonen arteko harremanei buruz informazioa lortzeko; bi horien artean desberdintasuna sortzen eta birsortzen duten prozesuak, gaitasunaren eta jokaeren balorazio asimetrikoa eta baliabideetarako eta botererako sarbide-desberdintasuna ulertzeko; eta desberdintasun horiek deuseztatzeko ekintzak diseinatzeak.

### 3.3. GENERO-ARRAZOIENGATIKO JAZARPENA

Baldin eta oinarrizko eskubideen urraketa pertsona jakin bati sexuagatik, orientazio sexualagatik edota genero-identitateagatik emandako rolaekin lotuta badago, genero-arrazoiengatik jazarpena gertatzen da. Emakumeek gizonek baino sarriago sufritzen dute jazarpen hori, desberdintasun-egoera dela-eta.

Genero-arrazoiengatik jazarpenak barne hartzen ditu (Musalo, K. 2005):

#### 3.3.1. Generoan oinarritutako jazarpena

Testuinguru jakin batean pertsona jakin bati egindako genero-erabileretan dago jazarpen horren oinarria. Emakumeen kasuan, ez zen jazarpenik gertatuko sexu horretakoak izan ez balira.

Talibanen erregimena indarrean egon zen bitartean, Afganistango emakumeek beren bizitzaren eremu guztietan sufritu zuten jazarpena. Gaur egun, bere horretan dirau herrialde horretako emakumeen egoerak.

Jazarpen-‘formula’ horiek beste egoera batzuetan ere erabiltzen dira: emakumeei familiako edo komunitateko gizonen iritzi politikoa, erlijioa, gizarte-taldea, arraza edota nazionalitatea esleitzen zaielako egiten zaizkien jazarpenetan.





### 3.3.2. Sexuaren araberako zigorrak eta jazarpen-moduak

Sarritan, ez datoz bat emakumeei jazarpena egiteko erabiltzen diren mekanismoak eta gizonei jazarpena egiteko erabiltzen direnak; hau da, sexuaren baitan dago zigorra.

Imajina dezagun diktadura baten aurkako alderdi politiko batean parte hartzen duten gizon baten eta emakume baten kasua. Gizona jazartzeko, indarkeria fisikoerabiltzen da –kolpeak eta lesioak–; emakumea jazartzeko, berriz, sexu-indarkeria –bortxaketa, adibidez–.

Oinarrizko eskubideak urratuta dituzten pertsonak sexu-diskriminaziorik egin gabe babestu behar dira



#### 4.

### Genero-arrazoiengatik jazartzeko moduak

Ondoren, jazarpenzat jo daitezkeen emakumeen aurkako indarkeria-egoera batzuk aipatzen dira. Asilo-eskubiderako nazioarteko babesak erantzuna eman behar die egoera horiei (Directrices ACNUR 2001):

- **Oinarrian giza eskubideen aurkako gizarte-arauak eta jarduerak dituztenez, izatez jazarpenezkoak diren legeak.**

*Emakumeen aurkako genero-indarkeriari buruzko NBEko errelatore bereziaren txostenaren arabera, 2003. urtean, gutxienez 54 herrialdek zeuzkaten emakumeak diskriminatzen zituzten legeak eta ez zeukaten etxeko indarkeriaren aurkako legedirik (edo ez zen haren berri).*

- **Lege bat edo politika bat bete ez duena emakumea bada, tortura, tratu jasanezin edota tratu iraingarri bihurtzen diren zigorrak.**

**Iran:** 2003ko bi hilabetetan, 20 urtetik beherako 45 emakume hil zituzten hurbileko familiartekoek Khuzestán probintzian, «**ohore-arrazoiengatik hilketetan**» (Middle East Times, 31 de octubre del 2003).

- **Helburuak justifikagarriak izanik ere, haiek betetzeko oso ondorio kaltegarriak metodoak dauzkaten lege edo politikak.**

**Mexiko:** txirotasunari aurre egiteko laguntzak –Hezkuntza, Osasuna eta Elikadura (Progres) Programa, adibidez– kentzeko mehatxuarekin indigenak kontrazepzio-metodoak erabiltzera behartu izana leporatu dio José Luis Soberanes Fernández arartekoak gobernari. NBEk ere 2002ko abuztuan emakume indigenei egindako antzutzeei buruzko kontuak eskatu zizkion Vicente Foxen gobernari (Ilvia Magally y Miriam Ruiz. Cimac, periodismo con perspectiva de género. México, DF, diciembre de 2002).

- Emakumeen askatasun edota osotasun fisikoa eta psikikoa asko mugatzen dituzten gizarte-legeak urratzean sortutako egoerak.

**Pakistan:** urtero, ehunka emakume hiltzen dituzte ohorearen izenean. Tirokatuta, erreta edota aizkorakadaka hiltzeko arriskuan daude, familiari lotsa ekarri diotela uste badu norbaitek: beraiek aukeratutako gizonarekin ezkontzea erabakitzen badute, dibortziatu nahi badute, bortxatu badituzte (Pakistán, Homicidios de niñas y mujeres por motivos de honor. Septiembre de 1999).

- **Familia barruko indarkeria.**

Hiru emakumetik batek edo, beste era batera esanda, mila milioi emakumek, kolpeak, nahi gabeko sexu-harremanak edota abusuak jasan dituzte. Oro har, familiako kideren bat edo ezagunen bat izaten da abusatzailea (E, L Heise, M Ellsberg, M Gottemoeller, 1999).

**Errusiar Federazioa:** 36.000 emakumek jipoia jasotzen dute egunero, senarrak edo bikotekideak emanda (D, OMCT, 2003).



- **Persona-salerosketa, behartutako prostituziorako edo sexu-esplotaziorako.**

**Amerika:** urtero, 100.000 pertsona baino gehiago erabiltzen dituzte jarduera horietarako. Horietatik %80 emakumeak dira, eta, gehienetan, sexu-esplotazioa izaten da helburua (Estatu Amerikarren Erakundearen ikerketaren arabera).

**Europar Batasuna:** erakunde horrek eskuartean dituen datuen arabera, urtean 100.000 emakume inguru salerosten dira lurralde horretan.

- **Orientazio sexualarengatik eta genero-identitatearengatik jazarpena.**

70 estatu, gutxienez, sexu bereko pertsonen arteko sexu-harremanak debekatzen zituzten legeak edukita sartu ziren XXI. mendean (Crímenes de odio, conspiración de silencio. Tortura y malos tratos basados en la identidad sexual. Amnesty International, 2000).

**Namibia:** Estatuko telebistan jakinarazi zenez, Jerry Ekandjo Barne ministroak gayak eta lesbianak «Namibiako lurretatik» «desagerrarazteko» eskatu zien orduantxe graduatutako polizia batzuei (Estatu Amerikarren Erakundearen ikerketaren arabera).

**Peru:** azken urteotan, lesbianen tabernen aurkako polizia-sarekadak salatu dituzte Liman (Peru). Kasu batzuetan, jendea jipoitu eta irain homofoboak esan zituen poliziak. Denboraldi batean, telebista-ekipo batzuk poliziarekin batera joaten ziren sarekadetara; gay, lesbiana, bisexual eta transexual askorentzat, ondorio suntsitzaileak izan ditzake beren identitatea telebistaz hedatzeak (Estatu Amerikarren Erakundearen ikerketaren arabera).

- **Emakumeak gizonak baino okerrago tratatzea eragiten duten diskriminazio-ereduak daude, eta horrek oso ondorio kaltegarriak ekar ditzake.**

Herri askotan, bizirik izango zirela aurreikusten zen 60 milioi neska 'falta' dira gutxienez. Sexuaren araberako abortua da horren arrazoia, edo, mutilak baino garrantzi gutxiagokotzat jotzen direnez, neskei jartzen zaien arreta falta (E, Joni Seager, 2003).

Emakumeen %47k esan du bere lehenbiziko sexu-harremana nahi gabekoa izan zela (A, OMS, 2002\*).

- **Sexu-abusuak gerra-armatzat.**

**Darfur (Sudan) eta Kongoko Errepublika Demokratikoaren ekialdea:** sexu-abusua gerra-armatzat erabiltzen zen –eta erabiltzen da–, emakumeen eta nesken aurka. Emakumeek eta neskek urteak daramatzate indarkeria-ekintzak sufritzen. Emakumeak inon ez daude seguru, ezta errefuxiatuen esparruetan ere. Kongoko Errepublika Demokratikoko osasun-sistema lur jota dago, eta, beraz, bortxaketatik bizirik ateratako emakumeek ez dute jasotzen lesioak eta infekzioak –zenbaitetan, hilgarriak– sendatzeko mediku-laguntzarik (África: perspectiva general 2004. Amnesty International).

Zauritu edo hil egiten dituzten gizonak 'heroiak edo martiriak' dira; bortxaketaren mina, berriz, isilik gordetzen da edo estigma bihurtzen.  
Reconstruir el tejido social, una enfoque crítico a la ayuda humanitaria  
Icaria & Antrazyt, Bartzelona, 1999.





## 5.

### Genero-arrazoiengatik jazarpena aitortzea

ikuspegi androzentriko bat hartu da giza eskubideak sustatzeko eta defendatzeko baliabideak lantzean eta aplikatzean. Historikoki, gizonen esperientziei erantzun diete, emakumeen egoera kontuan izan gabe. Emakumeen oinarriko eskubideak ez dira noizean behin urratzen; aitzitik, sarritan gertatzen dira urraketak, baina arrunt bilakatu den egiturazko zigorgabetasunak babesten ditu. Nazioarteko komunitateak gero eta argiago ikusten du genero-ikuspegia sartu behar dela izan badiren baliabideetan, baita hutsune hori gainditzeko araudi espezifiko bat egin behar dela ere. Ildo horretan, emakumeen giza eskubideak babesteko eta defendatzeko sistema bat sortu da. Baliabide hauek nabarmentzen dira:

- Emakumeen Eskubide Politikoei buruzko Konbentzioa, 1954.
- Emakumeen Aurkako Diskriminazioa Deuseztatzeari buruzko Nazio Batuen Deklarazioa, 1967.
- Emakumeen Aurkako Diskriminazio Modu Guztiak Deuseztatzeari buruzko Konbentzioa (CEDAW), 1979, eta haren Aukerazko Protokoloa, 2000.
- Emakumeen Aurkako Indarkeria Deuseztatzeari buruzko Nazio Batuen Deklarazioa, 1993.
- Beijingeko Adierazpena eta Ekintza Plataforma, 1995.

Errefuxiatutako pertsonen nazioarteko babesak oraindik ez du eraginkortasunez islatzen emakumeen giza eskubideen aitortpena.

2002ko maiatzean, Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Goi Komisarioak (ACNUR) txosten bat argitaratu zuen, estatuei interpretaziozko lege-gida bat emateko: Directrices sobre Protección Internacional: La persecución por motivos de género en el contexto del Artículo 1A(2) de la Convención de 1951 sobre el Estatuto de los Refugiados, y/o su Protocolo de 1967. Genero-arrazoiengatik jazarpena sufritu eta jatorriko herrialdetik ihes egiten duten emakumeak babesteko eskatzen die erakunde horrek estatuei.

Europar Parlamentuak estatu kideei eskatu die beren asilo-sistemetan kontuan hartzeko emakumeek emakume izateagatik jasaten duten jazarpena. Europar Kontseilua murriztaileagoa da genero-arrazoiengatik jazarpena aitortzean. Nolanahi ere, asilo-eskaerak baloratzean estatuek baldintza indibidualak –horien artean, sexua– kontuan izan behar dituztela ezartzen du. Haren arabera, jazarpena emakumeen aurkakoa bada, kontuan izan behar da era espezifikoan eta desberdinean egin daitekeela, sexu-arrazoiengatik.

Estatu batzuek beren jarraibideak garatu dituzte, jazarpen horiek aitortzen aurrera egiteko eta, bereziki, beren prozedurak genero-ikuspegia emanez egokitzeke. Estatu horien artean, Kanada nabarmentzen da herrialde aitzindaritzat. AEBetan, Australian, Irlandan, Erresuma Batuan eta Suedian ere garatu dira prozedura-gidak.

Testuingurua hori izanik, espainiar Estatuak ezin du bere erantzukizuna alde batera utzi; aitzitik, aurrera egin behar du asilo-eskubidea interpretatzen, jurisprudentzian eta jardueretan. Egun, gure asilo-sistemak ez du erantzukizunik hartzen emakumeak torturetatik, tratu jasanezinetatik eta tratu iraingarrietatik babesteko; halaber, ez du ziurtatzen harreran genero-alderdiak aintzat hartuko direnik. Hori ez dator bat emakumeen giza eskubideak babesteko duen politikarekin.





## 6.

### Espainiako asilo-sistema eta genero-arrazoiengatik jazarpena

2005. urtean, Espainiak ez zien babesik eman nahi izan –nahiz eta asilo-estatutuan hala onartuta egon– beren eskubideak urratu zitzaizkielako ihesi zihozazen emakumeei. Zergatik?

#### 6.1. AURRERA EGITEA BEHARREZKOAK DUTEN ESPARRUAK

##### 6.1.1. Emakumeen giza eskubideak bermatuko dituen asilo-eskubidearen interpretazioa

1978an, **1951ko Genevako Konbentzioa** berretsi zuen Estatuak, eta, ondorioz, errefuxiatutako pertsonak babesteko konpromisoa hartu zuen. Orduetik, emakumeen giza eskubideen urraketa alde batera uzten duen ikuspegiak interpretatu du baliabide hori. Kasurik onenetan, genero-arrazoiengatik ihes egiten duten pertsonen babes egokirik ziurtatzen ez dien babes-forma txikiago batera –osagarria edo ordezkatzaila– mugatu da puntualki estatuta.

Estatuak 1951ko Genevako Konbentzioa interpretatzeko eta aplikatzeko duen modutik dator genero-arrazoiengatik jazarpena dela-eta Espainiara iristen diren emakumeek jasaten duten babes falta

#### a) Jazarpen-kontzeptua

Errefuxiatuekiko babesaren testuinguruan, hau adierazten du ‘jazarpen’ terminoak: Konbentzioan jasotako arrazoiengatik oinarritzko eskubideak larri urratzen dituen ekintza oro. Espainiako asilo-sistemak, lurralde horretan asiloa eskatzen duten pertsonen erantzutean, babesa eman behar du, zenbait gauza alde batera utzi gabe:

- Mundu osoan emakumeek sufritzen duten diskriminazio-ereduaren ondorioz, testuinguru askotan, emakume izate hutsagatik jazarpena dituzte emakumeak.
- Gizonek eta emakumeek jasaten dituzten jazarpenen artean, emakumeei modu komunetan nahiz espezifikoen bidez egiten zaizkie jazarpenak, sexu horretakoak izateagatik.

#### b) Jazarpen-arrazoiak

Konbentzioan jasotako jazarpen-arrazoiak –arrazoia, erlijioa, nazionalitatea, iritzi politikoa edota gizarte-talde jakin batekoa izatea– interpretatzean ere ez dago genero-ikuspegiarik. Gabezia hori gainditzeko, zenbait gauza egin behar dira:

- Kontuan izan familiako, erreferentzia-taldeetako edota komunitateko gizonen ezaugarriak –ideologia, jarduerak...– esleitzen zaizkiela emakumeei zenbaitetan.
- Kontuan izan jazarpen-mota bakar bat era batera gauzatzen dela gizonen aurka, eta beste era batera emakumeen aurka.
- Gehienetan, eremu publikoko jarduerak ‘politikatzat’ jo daitezten, androzentrismotik garatuak izan behar dute. Hori dela-eta, gerta daiteke emakumeen iritziak iritzi politikotzat (iritzi politikoa terminoaren definizioa, ACNURen arabera: “agintariek edota gizarteak onartzen ez dituzten iritziak, haien politikak, ohiturak edota metodoak kritikatzeko dituztenak”). Hori horrela izanik, emakumeen giza eskubideak defendatzea eta sustatzea iritzi politikoa da. ez jotzea –beste gauza askoren artean–:



### Genero-arrazoiengatik jazarritako emakumeei asilo-eskubidea aitortzeko kanpaina

- Adibidea: ideologia feministak defendatzeagatik eta sustatzeagatik jazarritako emakumeak.

Afganistango Emakumeen Elkartea Iraultzaileko (RAWA) kide Sahar Saba da Afganistanen fundamentalistek gehien bilatutako pertsonetako bat, elkartea feminista horretako kide izateagatik. (Iturria: EFE agentzia, 2005eko azaroaren 28a, gizartea/feminismoa atala).

#### c) Jazarpen-eragileak

Jazarpena garatzen den herrialdeko estatuaren rola erabakigarria da asilo-eskubidean.

Asilo-eskubidearen arabera, jazarlea bi motatakoa izan daiteke:

- Estatukoa: estatuak jazarpena du, bere erakundearen edota agintarien bidez.
  - Estatuz kanpokoa: jazarlea estatu-egituratik kanpo dago.
- Esaterako, hurbileko familia edota hedatua, jazarritako pertsonaren komunitate-talde hedatuko kideak, gizarte-egitura bera...

Estatuz kanpoko eragileak dira emakumeen oinarrizko eskubideen urratzaile nagusiak

Historikoki, gobernuek aitortu izan dute estatuko eragileek egindako jazarpena; alde batera utzi dute, ordea, beren pasibotasunean gertatutakoa. Hain zuzen ere, hor sartzen dira genero-arrazoiengatik jazarpen-modu gehienak. Espainiako Gobernuak muga asko jartzen ditu estatuz kanpoko eragileen jazarpena aitortzeko. Baina, zer esan nahi du jazarpena egiteak: hura burutzea, sustatzea, onartzea ala hura eteten esku ez hartzea?

Jazarlea estatuz kanpokoa bada, bi ardatzeko azterketa<sup>1</sup> egin behar da, Jazarlea estatuz kanpokoa denean, bi ardatzeko azterketa egin behar da. Horren arabera, lotura izango da, baldin eta:

- Estatuz kanpoko eragileak Konbentzioan zehaztutako arrazoiren batek bultzatu badu.
- Estatuak jazarpena onartzen edo sustatzen badu, edota kaltefutako pertsona babesteko ezgauza bada.

ACNURek azterketa hori egitea aholkatzen du, eta zenbait herrialdetako agintariek onartu egin dute: Erresuma Batuko Lorden Ganberak, Australiako Auzitegi Gorenak, Zeelanda Berriko Errefuxiatu Estatuaren Apelazio Autoritateak...





#### d) Emakumeak gizarte-talde gisa

Jazarpenaren eta Konbentzian jasotako arrazoiaren interpretazio mugatzailea egiteaz gain, Gobernuak ez du aitortzen emakumeek emakume izateagatik –'gizarte-talde jakin batekoak izateagatik'– jasaten duten jazarpena.

ACNURen arabera, ezaugarri bereziak izanik besteengandik bereizten den `gizarte-talde jakin bat' dira emakumeak. Talde hori bereizten duen ezaugarria -sexua- jaiotzetikoa, aldaezina edo funtsezkoa da identitaterako, kontzientziarako eta giza eskubideak erabiltzeko. Jazarriak izatearekin zerikusirik ez duen ezaugarri komun bat da. Horrez gain, taldeetat jotzen dira gizartean. Asilo-eskubidearen arabera, emakumeak gizarte-talde jakin bat dira.

Genero-ikuspegia sartu gabe, ezin da pertsona errefuxiatuaren definizioa interpretatu

#### 6.1.2. Asiloa eskatzeko prozeduran genero-ikuspegia sartzea

Genero-arrazoiengatik jazarpena aitortzearekin batera, prozedurazko jarraibide batzuk finkatu behar dira, bi hauek bermatzeko: batetik, emakumeek asiloaren babesa eskuratzeko; bestetik, berriz, haien eskaerak behar bezala aintzat hartuak izatea. Asiloa eskatzeko prozeduran ere genero-ikuspegia sartu behar da.

#### a) Prozedurarako sarbidea

##### *Herialde seguru batera iristea*

Espanian, arrisku eta zailtasun handiko balentria bihurtu da asilo-prozeduran sartzea. Nagusien artean, mugak itxeko migrazio-politika nabarmentzen da, immigrazio irregularra geldiarazteko egin. Hein handi batean, traba horrek eragozten du 1951ko Genevako Konbentzian jasotako arrazoiengatik ihes egindako pertsonak leku seguruan sartzea.

Errefuxiatu guztientzat herialde seguru batera iristek berekin dakartzen arazoez gain, emakumeek arazo espezifikoak egin behar izaten diete aurre. Oro har, bi arazo nabarmentzen dira: batetik, leku batetik bestera joateko zailtasunak; bestetik, muturreko egoeretan erasotzen errazak izatea –Ceuta eta Melilla inguruko egonleketan dauden Sahara azpiko emakumeak bizitzen ari diren egoeretan, adibidez–.

##### *Prozedurarako sarbidea*

Gure lurraldera heltzea lortzen duten emakumeek asilo-prozeduran sartzeko arazoak izaten dituzte:

- Jazarpenaren arrazoia edozein delarik ere, genero-ikuspegia ez da barneratu asiloa eskatzeko prozeduran sartzeko mekanismoetan.
- Gutxiak dakite ezer genero-arrazoiengatik jazarpenari buruz.

Nazioarteko babes egokia ziurtatzeko, Espainiako asilo-sistemak asilo-eskubideari buruzko informazioarako sarbidea bermatu behar du, kontuan izanik emakumeek arazo gehiago izaten dituztela hura lortzeko.

Bereziki kezagarria da prostituziorako eta sexu-esplotaziorako salerosten diren emakumeen kasua. Administrazioak ahalegina egin behar du emakume horiek jakin dezaten bai asilo-eskubidea dutela, bai hori eskatzeko zer egin behar duten.



**b) Eskaerak behar bezala bideratzea**

Prozedurarako sarbidea ziurtatuta, genero-ikuspegitik egokiak diren baldintza batzuetan garatu behar du prozedura horrek.

Arretaz begiratu beharreko hiru alderdi nabarmentzen dira izapidean. Hau da, Espainiako asilo-sistemak hiru hauetan egin behar du aurrera:

*Genero-kontuetan prestatutako eta espezializatutako langileak*

Asilo-eskaera guztietan, oso garrantzitsuak dira prozesuan inplikaturako pertsona guztien –elkarrizketatzaileak, interpreteak, diplomazialariak, muga-langileak, asilo-eskatzailerei laguntzen dieten erakundeetako langileak...– prestakuntza eta jarrera. Ondoren, genero-kontuetan bermeak ziurtatzeko espainiar Estatuak bete behar dituen prestakuntza-baldintza batzuk nabarmentzen dira:

- Administrazioan asilo-izapideak egiteaz arduratzen diren langileek genero-kontuetan prestatuta eta sentsibilizatuta egon behar dute; elkarrizketak eta itzulpenak egiten dituztenek, batez ere.
- Biktima horiei laguntzeko informazio-, arreta- eta babes-prozesuan esku hartzen duten talde profesionalak espezializatzea eta sentsibilizatzea sustatu behar du Administrazioak.
- Traumaren osteko nahasmena tratatzen espezializatutako langileak eduki behar dira. Tratamendu horrek bame hartu behar ditu genero-indarkeriaren kasuak, eta arreta berezia jarri behar die sexu-indarkeriatik eratorritako sintoma edo nahasmen izan daitezkeenei.

Prestakuntza-baldintza horiek garrantzi handia dute genero-jazarpenagatiko eskaerak behar bezala tratatzeko eta jazarritako pertsonaren sexua dela-eta modu espezifiko batean gauzaturako jazarpenak identifikatzeko.

*Asilo-eskaeretan emakumeek norbanako gisa ere eskaera egin dezaketean ikustea*

Sarritan, tratamendu familiarra ematen zaie eskaerei. Emakumeak behar bezala babestuko direla ziurtatzeko, asiloa indibidualki –ez mendeko kide moduan– eskatzeko eskubidea dutela jakinarazi behar zaie, eta, horrez gain, ezkontide bakoitzarentzat espediente bat zabaltzen lagundu behar da.

Norberaren eskubidez baliozko eskaera bat izateko aukera dela-eta, estatuak mota bateko nahiz besteko babesa eman dezake. Emakume batzuek beren ezkontideen familia-hedapenari heltzen diote, beraiek beren aldetik ere errefuxiatuak diren arren. Horrek arazoak ekar diezazkieke, banatuz gero: besteak beste, harrera-herrialdean egoitza-baimena galtzeko arriskua dute (Valiente, M. 2005). Egoera hori bereziki gogorra izaten da tartean tratatu txarrak badaude.

Espainian, aukera hori ez da argi zehazten araudian aurreikusitako informazio-liburuxkan, eta, horrenbestez, Asilo eta Babes Bulegoan emakumeek beren espedientea izateko benetako aukera funtzionario-elkarrizketatzailearen balorazioaren baitan gelditzen da hein handi batean.

*Elkarrizketaren baldintza egokiak*

Elkarrizketetan, aintzat hartu behar litzateke zer egoera jasan dituzten asiloa eskatzen duten emakumeek, eta sexu-indarkeriari arreta berezia jarri beharko litzaioke.





## Genero-arrazoiengatik jazarritako emakumeei asilo-eskubidea aitortzeko kanpaina

Emakumeak bakarka elkarriketatu behar dira. Izan ere, ezkontidea edo beste norbait aurrean izanik –beldurragatik, lotsagatik edo mendekotasunagatik– segur aski agerian jarriko ez liratekeen egoera espezifikoak hauteman ahal izango dira hala. Litekeena da familiako gizonak jatorriko herrialdean eragile jazarleak izatea eta hemen ere hala izaten jarraitzea. Oso garrantzitsua da prebentzioari eta hautemate goiztiarrari arreta jartzea.

Nolanahi ere, Espainian oso ohikoa da hasierako elkarriketa 'familiako buruarekin' soilik edo familiako kide guztiekin batera egitea.

*Genero-bermeak ematen dituzten laguntza-baliabideak asiloa eskatzen duten pertsonentzat*

Asiloa eskatzen duten pertsonentzako laguntza-baliabideak egokitu egin behar dira, taldearen behar komunak nahiz sexuaren araberako behar espezifikoak betetzeko. Administrazioak baliabide egokiak eman behar ditu, bai zuzenean esku hartuz, bai gizarte-erantzukizun hori hartzen duten entitateei lagunduz.

### 6.2. INTERPRETAZIO HORI BARNERATZEKO ESTRATEGIAK ETA ESPAINIAKO ASILO-SISTEMAREN PROZEDURA

#### 6.2.1. Genero-arrazoiengatik jazarpenari buruzko Gobernu Jarraibideen formulazioa

Genero-arrazoiengatik jazarpenari buruzko prozedurazko jarraibide batzuk formulatu behar ditu Estatuak, ondoren Gobernuak, legelariak eta asilo-kontuetan erabakiak hartzeko ardura duten eragileek interpretaziozko lege-gidatzat balia ditzaten.

Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Goi Komisarioaren (ACNUR) Batzorde Betearazleak generoari buruzko jarraibide batzuk garatu ditu (Directrices sobre Protección Internacional: La persecución por motivos de género en el contexto del Artículo 1A(2) de la Convención de 1951 sobre el Estatuto de los Refugiados, y/o su Protocolo de 1967) eta eskaera bat egin die estatuei, behin baino gehiagotan: jarraibide horiek beren jurisprudentzian eta jardueran barneratzeko eta beren testuingurura egokitzeko eskatu die. Herrialde gutxi batzuek soilik hartu dute erantzukizun hori; esate baterako, Kanadak eta Zeelanda Berriak.

#### 6.2.2. Asilo Legearen eta haren Aplikazio Erregelamenduaren aldaketa

Asiloari buruzko Espainiako araudia aldatu egin behar da, edukia ACNURen generoari buruzko jarraibideekin bat garatzeko:

Generoari buruzko artikulatu espezifiko bat garatu behar da Asilo Legean.

Espainiako prozedurazko jarraibideen erabilpena aipatu behar da Legearen Aplikazio Erregelamenduan, juridikoki lotesleak izango direla ziurtatzeko eta genero-ikuspegitik egokia den tratamendu bat sustatzeko.

#### 6.2.3. Jarraibideen segimendua egiteko sistema bat ezartzea

Espainian asilo-eskubidea gardentasunez aplikatzeko, genero-jarraibideei segimendua egiteko sistema bat behar da. Mekanismo horri esker, kontuak eskatu ahal izango zaizkie eragile arduradunei eta, horrez gain, jarraibideak zenbateraino aplikatu diren jakin ahal izango da.



#### **6.2.4. Gaikuntza eta prestakuntza espezializatua**

Inplikaturako eragile guztiek –erabakiak hartzen dituztenek eta abokatuek, bereziki– prestakuntza jaso behar dute:

- Gaiari buruz gehiago jakiteko eta sentsibilizatzeko.
- Pertsonak eta haien egoerak behar bezala tratatzeko gaitasunak garatzeko.

#### **6.2.5. Genero-arraioengatik jazarpena Europar Batasunean sartzea**

Europar Batasunaren erakunde-esparruan, bidean da gaur egun asilorako komunitate-sistema bat. Hori dela-eta, 1951ko Genevako Konbentzioa erabat aplikatzea sustatu behar du Gobernuak, genero-ikuspegia sartuz eta genero-arraioengatik jazarpena aitortuz.



## 7. Bibliografía

ACNUR - Alto Comisionado de Naciones Unidas para los Refugiados (2002): *Directrices sobre protección internacional: La persecución por motivos de género en el contexto del Artículo 1A(2) de la Convención de 1951 sobre el Estatuto de los Refugiados y/o su Protocolo de 1967.*

ACNUR (1992): *Manual de procedimientos y criterios para determinar la condición de refugiado en virtud de la Convención 1951 y el Protocolo de 1967 sobre el Estatuto de los Refugiados.*

ACNUR (2001): *Documentos de la conferencia interagencial sobre las lecciones aprendidas. Anexos: prevención y respuesta a la violencia sexual de género en situaciones de refugiados.*

ACNUR e Instituto Internacional sobre Derecho Humanitario (2001): *La persecución relacionada con género. Consultas globales sobre la protección internacional. San Remo.*

ACNUR y Unión Interparlamentaria (2001): *Protección de los refugiados. Guía sobre el derecho internacional de los refugiados. Guía práctica para parlamentarios.*

Amnistía Internacional (2004): *España: Resumen informativo de AI con relación al quinto informe periódico que presenta España ante el Comité sobre la Eliminación de la Discriminación contra la Mujer de la ONU. EDAI, Madrid.*

Amnistía Internacional (2004): *Está en nuestras manos: No más violencia contra las mujeres. Edición española por EDAI, Madrid.*

Amnistía Internacional y Anti-Salvery Internacional (2004): *Observaciones sobre el borrador revisado del Convenio Europeo contra la Trata de Seres Humanos.*

Amnistía Internacional (2004): *No más violencia ni discriminación contra las mujeres lesbianas y bisexuales. Actúa para poner fin a la discriminación y violencia por orientación sexual e identidad de género. Edición española por EDAI, Madrid.*

Amnistía Internacional (2002): *No hay excusa. Violencia de género en el ámbito familiar y protección de los derechos humanos de las mujeres en España. EDAI, Madrid.*

Amnistía Internacional (2001): *Cuerpos rotos, mentes destrozadas. Tortura y malos tratos a mujeres. Edición española por EDAI, Madrid.*

Amnistía Internacional (2000): *Respetar, proteger, observar... los derechos humanos de las mujeres. La responsabilidad de Estado en los abusos cometidos por agentes no estatales. Edición española por EDAI, Madrid.*

Boletín Oficial de las Cortes Generales (2001): *Proposiciones no de ley, Control de la acción del Gobierno. Sección A: Actividades parlamentarias, 23 de abril de 2001, Núm. 136.*

Bonelli, E. y Ulloa, M. -coords- (2001): *Tráfico e inmigración de mujeres en España. Colombianas y ecuatorianas en los servicios domésticos y sexuales. ACSUR-Las Segovias, Madrid.*





Genero-arrazoiengatik jazarritako emakumeei asilo-eskubidea aitortzeko kanpaina

*Convención sobre el estatuto de los refugiados. Naciones Unidas, Ginebra, 28 julio de 1951.*

*Directiva 2005/85/CE del Consejo de 1 de diciembre de 2005 sobre normas mínimas para los procedimientos que deben aplicar los Estados miembros para conceder o retirar la condición de refugiado. Diario Oficial de la Unión Europea L326/13, 13 de diciembre de 2005.*

*Directiva 2004/83/CE del Consejo de 29 de abril de 2004 por la que se establecen normas mínimas relativas a los requisitos para el reconocimiento y el estatuto de nacionales de terceros países o apátridas como refugiados o personas que necesitan otro tipo de protección internacional y al contenido de la protección concedida. Diario Oficial de la Unión Europea L304/12, 30 de agosto de 2004.*

*Directiva 2003/9/CE del Consejo de 27 de enero de 2003 por la que se aprueban normas mínimas para la acogida de los solicitantes de asilo en los Estados miembros. Diario Oficial de la Unión Europea L31/18, 6 de febrero de 2003.*

*Instituto de la Mujer (2003): IV Plan de igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres 2003-2006. Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales, Madrid.*

*LEY 30/2003, de 13 de octubre, sobre medidas para incorporar la valoración del impacto de género en las disposiciones normativas que elabore el Gobierno. Boletín Oficial del Estado, nº 246, 14 de octubre de 2003.*

*Musalo, K. (2005): La Convención de 1951 sobre el Estatuto de la Persona Refugiada y la protección de las mujeres frente a las violaciones de sus derechos fundamentales. Revista de Derecho Migratorio y Extranjería, nº 8, Universitat Jaume I.*

*Pérez de Armiño, K. (2000): Diccionario de acción humanitaria y cooperación al desarrollo. Icaria, Barcelona.*

*Pérez, E. y Rodríguez, A. –coords- (2005): Situación de los Derechos Humanos de gays, lesbianas, bisexuales y transexuales. Comisión Española de Ayuda al Refugiado, CEAR, Madrid.*

*Protocolo sobre el estatuto de los refugiados. Naciones Unidas, Nueva York, 4 de octubre de 1967.*

*Santolaya, P. (2000): Mujer y Constitución. Derecho de Asilo y persecución relacionada con el sexo. Págs. 561-593. Centro de Estudios Políticos y Constitucionales, Madrid.*

*SRE/UNIFEM/PNUD (2004): Compilación selección del marco jurídico nacional e internacional de la mujer. México.*

*Valiente, M. (2005): La persecución por motivos de género y su protección en España, Anexo 2, Informe de la Comisión Española de Ayuda al Refugiado (CEAR). La situación de los refugiados en España 2005. Catarata, Madrid.*

